



SALDA BADAGO

AZAROAK 1, 2, 3
EUSKAL HERRIKO V. JARDUNALDI
FEMINISTAK

ZER DIRA EUSKAL HERRIKO JARDUNALDI FEMINISTAK?

Euskal Herriko Jardunaldi Feministak mugimendu feminista autonomoak mugimenduaren ildo estrategiko nagusiak eztabaidatzeko antolatutako jardunaldiak dira. **Lehenak, 1977ko abenduan izan ziren Leioan** eta 3000 emakume bertaratu ziren. Geroztik, momentu ezberdinetan jardunaldiak antolatu izan dira, 1984an eta 1994an EHUko Leioako Campusean, eta 2008an Portugaleteko Nautika Eskolan, eta Euskal Herriko feminis-tontzat zita garrantzitsua izan da beti, hitzordu guztien arrakastak erakutsi digunez.

Urte luze hauetan, askotarikoak eta oso anitzak izan dira bertan izandako eztabaidagaiak, unean uneko errealitate eta premiei erantzuten zietenak: sexualitatea, abortua eta antisorgailuak, bortxaketak, familia-plan-gintza, medikuntza eta emakumea, patriarkatua, militantzia eredu, lana eta lanaren banaketa, hezkidetzak, aurrera begirako alternatibak, zientzia, osasuna, militarismoa, pornografia, indarkeria sexista, gorputzak eta identitateak... Halaber, gai hauek guztiek jardunaldien helburu nagusiei erantzun izan diete, hala nola, haus-narketa teoriko kolektiboari, talde feministen elkar ezagutza eta saretzeari...

Ordutik hamar urte pasa dira, eta V. Jardunaldien erronkari eutsi diogu.

2019AN, GREBATIK ... JARDUNALDIETARA!

Urte luzetako teoria eta praktika feministen oinordekoak gara Euskal Herrian.

Azkenengoz elkartu ginenetik hamar urte pasa dira, eta elkarren arrimuan biltzeko, eztabaidatzeko, gogoe-tatzekoa eta festa egiteko garaia badela uste dugu.

Salda badago

Su motelean luze irakin dugun iraultza gara, salda gara. Hamaika osagai eta mila zaporekoa. Ez dago erre-zeta bakarra. Orotarikoak gara, anitzak, zahar bezain berriak, handik eta hemendik datozenak, doazenak; eta badakigu nahasita sendotu egiten garela. Ezagunak eta ezezagunak, guztiak ondo etorriak, kikaraz kikara la-pikoak gainezka egin arte. Bertan daude belaunaldiz belaunaldi partekatutako beroa, iraultza, borroka. Garai bakoitzak bere beharrak, bere lehentasunak, bere gatza eta bere piperra. Izan ere, sukalde-lanean aspaldi ari gara tokatu zaigun honetarako ere.

Mugimendua gara, antolatuta gaude, saldan bagaude. Badakigu zer den amorrus irakitea, eta baita salda beroz elkar-osatzea ere. Badakigu albokoa gozaten baina baita erasotzailea erretzen ere. Matxismoa, faxis-moa, arrazakeria, kapitalismoa, lesbofobia, transfobia... hil eta gero, salda bero!

Lehengaiak baditugulako, salda badago. Mugimendua garelako, bizitza bizigarri egitera gatozelako, iraul-tzan garelako, indarkeriei eta zapalkuntzei planto egin diegulako. Feminismoan gara eta mugimendu femi-nistan gaude, eta bai, badago zer edan. Bor-borka ari da aspaldian, eta gainezka egingo du azaroan.

Beraz, ekarri zurea eta egin topa, denontzako salda badago-eta!

NON ETA NOIZ IZANGO DIRA?

Jardunaldiak 2019ko azaroaren 1eko zubian izango dira, Durangon.

ARDATZAK

Askotariko aldaketek ezaugarritzen dute XXI. mendea. Batetik, mugimenduaren erraiak aldatu dira, eta MFren ikusgarritasuna, legitimitatea eta mobilizatzeko gaitasuna areagotu eta indartu egin da. Bestetik, eremu sozial, ekonomiko, politiko, ideologiko zein instituzionalean askotariko aldaketak gertatu dira. XXI. mendean, kapitalaren mugikortasun askeak, politika ekonomiko neoliberalak, krisi ekonomiko sozialak kasu, azken hamarkadetan herritarron egoera sozio-ekonomikoa guztiz baldintzatu dute. Pobreen eta aberatsen arteko arrakala areagotzen ari da, eta irabazleen eta galtzaileen arteko lehia bizi-bizirik dago. Lehia horretan, emakumeok ez gaude irabazleen bandoan, noski. Herritarron, langileon eta, bereziki, bazterretako subjektuon prekarizazioa da egungo egoeraren ezaugarri nagusia. Honen aurrean, borroka sozialen kriminalizazioa eta militarizazioa handituz doa, eta horiei esker lortu dute inposaketa horiekin guztiekin aurrera jarraitzea. Bitartean, herritar askorentzat herrialdeetako mugak hilerri eta gotorleku itolarri bilakatzen ari dira Europan. Hori gutxi balitz, beste hainbat neurri ari dira sustatzen, hala nola: mugetako kontrolak, segurtasun gastuak igotzea, alerta antiterrorista zabaltzea... Horiez gain, lehen gutxi ez, eta faxistak oldartzen ari dira.

Gainera, Euskal Herrian, testuinguru politiko berri batean gaude, urtetan gure gorputzak eta mugimendua zeharkatu dituen gatazka politiko armatuaren konponbidean, urrats esanguratsuak eman dira bakegintzan. Alde horretatik, feminismotik abagune berri honetan ere, asko dugu esateko, gogoetatzeko eta eragiteko.

Hori guztia aintzat hartuta, feministok elkartzeko unean gaude, egoeraren analisiak partekatzeko eta batez ere, aurrerantzean, estrategia bateratuak zehazteko. Horretarako, hainbat helburu jarri dizkiegu V. Jardunaldi Feministei, besteak beste: egungo testuinguruak feministoi eta, oro har, emakumeoi* eskaintzen dizkigun aukerak eta oztopoak identifikatzea; iazko zein aurtengo martxoaren zortziko greba feministaren uholdearen ezaugarriak eta ondorea partekatzea; MFaren subjektu politiko feminist(ar)en inguruan eztabaidatzea eta adostea; MFaren antolaketa ereduaren eta militantzia feministaren inguruko diagnostikoa egitea eta aurrera urratsak identifikatzea...

Aurrean dugun erronka ez da makala, beraz, jardunaldi hauek egituratzeko, ardatzen proposamen bat egin dugu. Bost ardatz proposatzen ditugu, nahiz eta jakin badakigun patriarkatuaren zapalkuntza logikak ezin direla zatikatu, ardatz ditugun eztabaidak ordenatzeko eta antolakuntza eta funtzionamendua errazteko tresna gisa ulertu behar dira.

Beraz, ezinbestean, bost ardatz horiek elkarri lotuta daude.

1. MUGIMENDU FEMINISTAREN ERRAIEI BEGIRA.

• Helburua:

Egungo testuinguru sozial, politiko zein ekonomikoa aintzat hartuta, ardatz honetan langai izango ditugun eztabaida gaiak mugimenduaren barne egitura eta osaketari egiten diote erreferentzia. Feminismoaren hedapen ikaragarria uka ezina da, eta hori kontuan izanik, estrategikoki hartu beharreko neurriak aztertzea ezinbestekotzat jotzen dugu. Gure feminismoa anitza eta askotarikoa bada ere, zerk batzen gaituen horri begiratu nahi diogu, komunean eraikitzen goazen hori birpentsatu, nahiz eta desadostasunez jabetu eta horietatik ikastea erronkatzat hartzen dugun. Feministok ongi dakigu, aurrera pausoak emateko, lehen urratsa barrura begiratzea dela.

• Langaiak:

• Genealogia feministen berreskurapena • Subjektu politiko feministak • Parte-hartzea • Militantzia ereduak. • Militantzia bikoitzak • Militantzia bizigarriak • Kanpo indarra vs. Barne giharra • Antolakuntza ereduak • Estra-

tegia politikoa • Aliantza feministak • Boterearen kudeaketa etxe barruan • Botere harremanak • Pribilegioak/hegemoniak • Identitate politikoak • Instituzio publiko politikoekiko harremana • Mintzakidetza politikorako gaitasuna • Botere politikoa eskuratzea • Interseksionalitatea • Teoria eta praktika. Aukerak, oztopoak, erronkak • Aniztasunaren kudeaketa • Metodologia feministak • Feminismo lesbianoa • Feminismo baserritarra • Feminismo dekoloniala • Feminismo abertzalea • Feminismo antiespezista...

2. GURE BIZITZAK ERDIGUNERATZEKO AGENDA PARTEKATUA.

• Helburua:

Guztionezko bizitza bizigarriak lortzea elkarren arteko beharraren aitortzatik hasten da, ez garelako merkatura datozen subjektu autonomo eta arrazionalak, beharrik gabekoak. Inguruan sumatzen ditugun injustiziak elkarloturik ulertu behar ditugu: soldatapeko lan feminizatu prekariora, ordaindu gabeko etxeko lanetan ematen ditugun jardunaldi amaigabeak, barne etxeko langileon egoera administratibo irregularra, botere guneetan dauden gizon burgesek bankaren interesak lehenestea, naturaren desjabetzea, emakume, bollera eta transen aurkako biolentziak, epaitegietan erasotzaileak babestea e.a. Gure jendartean bizitza batzuk beste batzuk baino balio handiagoa daukatela erakusten digute. Hierarkia horiekin amaitzea da helburua, eta saiakera horretan ari gara.

• Langaia:

• Bizitza sostengatzeko ardura kolektiboa • Zaintzaren berrantolaketa soziala • Pobreziaren feminizazioa • Paktu sozial berri baterako oinarri feministak • Emakumeen* eskubide sozial eta zibilak eskuratzeko borroka. • Lanaren esplotazioa • Arrazakeria eta sexu-generoaren bereizkeria • Lana eta aberastasuna modu justuan birbanatzea • Ekonomia Feminista • Bizitza vs. Kapitala • Sektore feminizatu eta prekarioen borroka • Osatze feminista • Familia nuklearra, patrimonioa...

3. INDARKERARIK GABEKO BIZITZAK ERAIKITZEN

• Helburua:

Sistema heteropatriarkal kapitalista honek bere biziraupenerako ezarritako arauaren menpe behar gaitu, eta bertatik atera ez gaituzen, zigorra eta biolentzia ditu tresna nagusi, horrela, egitura diziplinario bortitza ezarriz. Hori horrela, gizon heterosexual txuri guztiz ahaldunaren eredutik ateratzen denaren bizitzek gutxiago balio dute, egun, gure jendartean. Estatuarena da bortizkeriaren monopolioa, eta sistemak dagoeneko ahulduriko gorputzei defentsarako aukera lapurtu digu. Alde bakarreko bortizkeria fluxu hori, gure egituraren txertatuta dauden estrategia sotil zein agerian bitartez gertatzen da. Horregatik guztiagatik, esan genezake nekropolitika heteropatriarkal bortitz baten aurrean gaudela, hau da, jendea hiltzen uztean datza nekropolitika, besteak beste, gose direnei arretarik ez ematea, indarkeria sexista jasaten duten emakumeei egoera horietatik ateratzeko neurriak ez eskaintzea edota itsasoan itotzen ari direnei ez laguntzea.

• Langaia:

• Justizia patriarkaletik feministara • Instituzio publiko politikoak eta legegintza • Lesbofobia • Indarkeria obstretizia • Indarkeria intrageneroa • Transfobia eta despatologizazioa • Indarkeria koloniala • Atzerritartasun Legea • Autodefentsa feminista • Logika punitiboak eta kartzela

4. GORPUTZAK, BURUJABETZAK ETA DEKOLONIALITATEA

• Helburua:

Mugimendu feministaren aldarri historikoa izan da gorputzarena, bertan sinbolizatu baititugu gure autonomia eta burujabetza. Egun, aurrerapauso asko eman baditugu ere, gobernu neoliberalak gure gorputza eta

nortasuna merkantilizatzeko estrategia anitzak garatu dituzte. Berrero ere, gure lurraldea den gure gorputzari buruz dugun jakinduria gutxietsi eta honen jabetza ukatu digute. Gure gorputzak merkatu eta ekonomiaren beharretara egokitu behar dira, kontsumorako objektu dira, edertasun kanonaren biktima, hiritarren sorleku, bortizkeria sexualaren zein gudetarako biktima... Eta edonola ere beraien bakea gure guda izaten jarraitzen du, baita beraien oparotasuna gure krisia ere. Horrez gain, Euskal Herriaren, hau da, bizi garen lurraldearen zein lurraren gaineko burujabetza proposamenen inguruko ezaugarritze feministetan sakontzea beharrezkotzat jotzen dugu, lurraldetasuna, lurra eta ondare linguistiko zein kulturalaren gaineko hausnarketak eta estrategiak partekatu nahi ditugu. Eta nola ez, genealogia egitean, atzera begiradan nahiz aurrera begiratzean, bizitoki dugun lurralde honetatik, Euskal Herritik egiten dugu so, baina askotariko gorputzetatik hitz egiten dugu, askotariko lurraldeetatik, eta horiekin guztiekin, begirada dekoloniala lantzea eta txertatzea erronka bat da. Dekolonialitateen teoriak eginiko proposamenen gainean, Euskal Herriko MFtatik osagarritzea, sakontzea eta egokitzea da asmoa.

- **Langaiak:**

- Burujabetzak • Estatugintza • Elikadura burujabetza • "Euskal gatazka", eta bakegintza feminista • Merkataritza askeko nazioarteko itunak • Europar Batasuneko migrazio politika • Kolonizazio kulturala • Dekolonialitatea • Haurdunaldi subrogatua • Osasun mentala eta neurodibergentziak • Prostituzioa • Indarkeria obstetrikoa.

5. SEXUALITATEAK

Jendarte kapitalistak ez dio sekula gozamenari aitortzarik egin, ez baita produkzio logikaren barruan ulertzen. Baina gure sexualitatearen adierazpenak duen esanahi politikoa ukatzea tranpa da, bertatik eraikitzen baitira gure jendartearen balio sinboliko zein egitura sozialak. Gure sexualitatea gozatzeko modu bakar eta hegemonikoa inposatu zaigu, eta txikitatik, gure desira horren baitan eraiki dugu. Beraz, gozamenaren diziplina horretatik harago joan, eta desira berriak eraikitzea da gure erronka. Desirak duen potentzialtasun politikoaz jabetu behar dugu, hankaz gora jarri egun ditugun desira logikak.

Horretarako, arauetatik at dauden gorputz eta praktikekiko dugun begirada birmoldatzea dugu apustu.

- **Langaiak:**

- Eskubide sexualak • Sexualitate anitzak • Sexofobia • Gorputz ez arautuen sexualitate eskubidea • BDSM – harreman botereak deseraikitzen • Desira arautuak eta ez arautuak • Lesbianismoa • Asexualitatea • Sexualitatearen inposaketa eta estatusa.

ANTOLAKUNTZA EREDUA

Koordinazio markoa osatu dugu, hainbat azpi-lantalde dituena: komunikazioa, edukiak, sareak eta parte-hartzerako metodologiak, azpiegitura eta diruzaintza. Erabaki nagusiak hartuko diren lantaldeetan kolektibo feministak egongo dira. Baina prozesuan parte-hartzea bermatzeko bestelako espazio ugari ahalbidetuko dira (ikus hurrengo puntua).

SARETZA

Prozesu honen parte izateko eta sentitzeko moduak anizteko apustua egiten dugu, jardunaldietan parte-hartzeko modu bakarra hitzaldien bitartez izan ez dadin. Sareak egiteko zein parte-hartzearen ulerkeria zabala eraikitzeko, hauek dira planteatzen ditugun urratsak:

1. BAZTERRAK ERDIGUNERA:

- **Emakumeon* kolektibo ezberdinak identifikatu eta haiengana joan:** Ariketa hau herrialdeka egin beharko litzateke. Eskualde guztietan dauden kolektiboak zerrendatuko ditugu, lehentasunak aukeratuz eta kontziente izanda guk geuk egin beharko dugula harremana. Horrekin batera, zerrendatutako espazio guzti hauei jardunaldietako prozesuan parte-hartzeko eta ekarpenak egiteko gonbidapena egingo diegu, horretarako dauden modu ezberdinak kontuan hartuz. Harremanak egiterakoan, **batez ere, Mugimendu Feministaren erdigunean ez dauden emakumeen kolektiboengan arreta jartzea proposatzen dugu.** Greba feministan egindako sareak baliatu ditzakegu horretarako eta berriak sortu.
- **Jardunaldietako prozesuan espazio ez-misto espezifikoak zabaltzea:** gaur arte egindako asanbladetan ateratako beharrari helduz, prozesuan zehar espazio hauek zabaltzeko aukera ikusten dugu. Subjektu bakoitzari autonomia emanaz bere behar eta denboren arabera planifikatzeko (hala nola, neska gazteak edo emakume migratuak...).

2. HERRIALDEKO SAREAK ETA MUGIMENDU FEMINISTAREN INPLIKAZIOA

Asanblada lokalak egingo dira eta bi funtzio izango dituzte:

- Alde batetik **Euskal Herriko V. Jardunaldi feministak aurkeztu** eta informatzea (zer diren, noiz, ardatzak...), ahalik eta modu horizontal eta gertuenean. Emakume, bollera eta trans gehienengana iristeko kanala izango da hau.
- Beste alde batetik, asanblada hauek informatiboak izateaz gain, **ekarpenak egiteko espazioak** ere izango dira. Zentzu honetan, jardunaldien erronka izango den **mugimendu feministaren erradiografia osatzeko prozesu parte-hartzaile bat egitea planteatzen da.** Diagnostikoa osatzeko, oinarriko materiala sortuko da, asanbladetan ekarpenak jasotzeko helburuarekin.

Finean, sare anitzak artikulatu behar ditugu hilabete hauetako prozesuan zehar eta mugimendu feminista osoa jardunaldien parte izan eta sentitu behar da. Aurre lanketa hau Mugimendu Feminista aglutinatuzko prozesua izango da.

3. EUSKERA ERDIGUNEAN JARRI ETA GURE ANIZTASUNA ZAINDU

Hizkuntzen eta kulturen arteko harremana ukatzen denean, hiztunen eta herritarren duintasunari muzin egiten zaio. Hartara, hizkuntza-aniztasunaren aldarrikapena pertsonen eskubide guztien defentsarako ekarpen gisa ulertzen dugu. (...) Hizkuntza guztiak dira nortasun kolektibo baten adierazpen, bai eta errealitatea modu desberdinean hautemateko eta deskribatzeko tresna ere (...)

Hizkuntza-komunitate orok eskubidea du baliabide propioak antolatu eta kudeatzeko, gizarte-funtzio guztietan bere hizkuntzaren erabilera ziurtatzeko helburuarekin, bai eta hizkuntzaren transmisioa eta hizkuntzaren etorkizuneko proiektioak bermatzeko beharrezko baliabideak izateko ere.

Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa

Euskara kohesiorako hizkuntza

Gure hizkuntzari buruzko hausnarketan murgilduta gauden honetan, ezinbestekoa da emakumeek diktadura frankistaren garai errepresibo eta latzetan euskararen biziraute, zaintza eta transmisioan izandako papera azpimarratzea. Gure arbasoei egin beharreko aitortza da, hurrengo belaunaldioi lekukoa pasatzea ahalbidetu baitzuten. Eredu pribatua zein zaintza eta ekonomia murgilduetan, bertan gertatzen baitzen zinez sozializazio eraginkorra. Euskara babesteak emakume eta feministon genealogia batera garamatza.

Euskal Herriko Jardunaldietan euskara jarri nahi dugu erdigunean. Gure erronka, zeregin hau zaintza eta empatiatik burutzea da. Euskara harrera hizkuntza bilakatu, gutako bakoitzaren hizkuntza maila delakoa izanda ere, komunitate linguistiko eta kultural honen parte sentitu gaitzen. Horretarako, elkarren aitortzatik hasiko gara, egunerokotasunean elkar ulertzeko egiten ditugun ahaleginen eskertzea egitetik, ahobizi izateagatik (euskaraz aktiboki hitz egin), euskara ikasteagatik, belarriprest izateagatik (entzute aktiboa praktikatu nahiz eta euskaraz ez hitz egin), eta gure jatorrizko hizkuntzetatik zein gure errealtateari erreparatzeko moduak elkarri itzultzeko jarrera irekia adierazteagatik. Hau da, hain zuzen ere, gure aniztasunak zaintzeko bermerik handiena, Euskal Herriko jatorrizko kultura eta hizkuntza bultzatzen ditugularik. Honen guztiarengatik, Euskal Herriko Jardunaldi Feministetan beharrezko tresna eta metodologiak martxan jarriko ditugu, gure baliabideak aintzat hartuta, euskararen erabilera efektiboa egin, eta bakoitzak behar duen hizkuntza erabiltzeko aukera eduki dezan.

Zertarako hizkuntza irizpideak

Mugimendu Feministak, kolektibo anitzen batura moduan, barne nahiz kanpo komunikazioan erabiliko duen hizkuntzen kudeaketa kontzientea egin nahi du Euskal Herriko Jardunaldi Feministei begira. Horretarako, kudeaketa linguistikorako marko eta tresna erabilgarriak adostuko ditugu.

- **Gure errealtate linguistiko anitzari erantzuteko:** Jardunaldi Feministek Euskal Herrian dagoen hizkuntza aniztasunari erantzutearekin batera, gune euskaldun izan daitezten.
- **Hizkuntza, auzi kolektiboa eta politikoa:** hizkuntzari buruz hitz egin daiteke pertsonala politikoa dela esaten denean. Hizkuntzaren hautua ez da eremu intimo edo pribatua geratzen den kontua. Auzi kolektiboa da eta horrela erantzun behar zaio. Adostasunak topatuz, egoera bakoitzari behar zaion erantzuna eman ez eta horretarako bitartekoak bilatuz eta sortuz.
- **Mugimendu Feminista euska(ha)lduntzeko:** erdaldunak edo ia-euskaldunak diren kideekin harremanak ditugunean, egoerari aurreko egiteko jokamolde eta irizpide batzuk adostea komeni delako, mugimendu feminista kolektibo bezala eta bertako kideok euskaldun bezala ahaldundu gaitzen.
- **Esperientziak partekatzeko:** euskaraz bizi nahi badugu, pausoak eman behar ditugu ahalduntzeko. Baina zein esperientzia eta kezka konpartitzen ditugu denok euskaraz bizi nahi baina ezin dugunean? Zein bizipen ditugu gune euskaldun batean hizkuntza ulertzen ez dugunean? Esperientziak partekatu eta praktika berriak sortu nahi dira, hizkuntza txikiei tokia egin eta euskaratik munduari begiratzeko perspektiba eskaini nahi da Jardunaldi Feministetan.

EZTABAIDARAKO ESPAZIOAK ETA PARTE-HARTZERAKO AKORDIOAK JARDUNALDIETAN:

Irizpide hauek gida bat izango dira jardunaldietako antolakuntzarako, eta zabalatasun eta malgutasunez aplikatuko dira. **Azken helburua, ahalik eta emakume, bollera eta trans gehien Euskal Herriko Jardunaldi Feministen parte izatea da**, askotariko bideen bitartez: entzule moduan, eztabaidetan parte hartuz, taillerretan, ponentziak aurkeztuz e.a. Erronka bikoitza daukagu: **eztabaida politiko nagusietan kolektibo feministen lidergoa laguntzea, eta era berean, Euskal Herriko espresio feminista ezberdinei bide ematea.**

Jakina da egun kolektibo feministetatik harago, oso eremu ezberdinetan garatzen ari garela borroka feminista, eta hauetan dauden emakumeek* prozesuaren parte izan eta sentitzeko formulak topatzea ezinbestekoa da.

Horregatik, gida hau aurkezten dugu, parte-hartzea mugatu baino, parte-hartze modu ezberdinak ordenatzeko asmoz, Jardunaldietan denok gure lekua argi izan dezagun eta gure lekutik ezinbestekoa den ekarpen hori egin dezagun.

Jardunaldietako edukien 5 ardatzak baliatuko ditugu espazioak egituratzeko:

• **Mahai-inguru nagusiak eta ponentziak:**

Zer dira? Edukietako 5 ardatzei erantzungo diote. 4 edo 5 hitzartzeez osatutako mahaiak izango dira (aldez aurretik ponentziak testu idatzian aurkeztutakoak) plenarioan. Mahai hauek egitarauan leku nagusi bat izango dute eta gela handienetan egingo dira. Hitzartzeen ostean eztabaidak egingo dira antolakuntzak dinamizatutako lan taldeetan.

Nork aurkeztu ditzake ponentzia proposamenak? Euskal Herriko Mugimendu Feminista autonomoaren Jardunaldiak izanik, **kolektibo feministetako ponentziak** hobetsiko dira mahai nagusietan.

Zer da ponentzia bat? Gai jakin baten inguruan talde feminista batek egiten duen proposamen politiko eta ideologikoa biltzen duen hitzartzea da.

Iraupena: 2 ordu eta erdi

• **Tailer eta eztabaidak:**

Zer dira? Espazio hauetako formatua malgua izango da: hitzaldiak, panelak, talde dinamikak, ikus-entzuzko proiektioa, edo proposamena aurkezten dutenek planteatu dezaketena (proposamena aldez aurretik idatziz bidaliko da). Aintzat hartzen da talde ezberdinen artean elkartu eta eztabaidarako mahaiak antolatzeke aukera.

Espazio hauek paraleloak izango dira eta aldi berekoak denboran, beraz, parte hartzaileek hauen artean aukeratu beharko dute.

Nork aurkeztu dezake tailer edota eztabaida proposamena? Alde batetik, edozein talde edo asanblada feministak aurkeztu dezake. Bestetik, **Eragile misto edo ez mistoen baitako alor feminista espezifikoek:**

sindikatuetakoa idazkaritza feministek, herri mugimenduko taldeek, Ekonomia Sozial Eraldatzailearekin lotutako eragileek, GKEek edo beste elkarte motek, ikerketa zentro feministek...

**Alderdi politikoen baitako antolakundeek* ezingo dute ponentzia, eztabaida edota tailerrik aurkeztu, ezta hauen barruan egitura feministetan dauden emakumeek ere.

Talde hauek parte hartzeko **eztabaida, tailer edo asanblada parte hartzaileetan, kolektibo feminista baten edo gehiagoren abala beharko dute**. Talde hauek onartu edota sustatzeko kontuan hartuko da borroka feministetan izandako ibilbidea, kolektibo feministekiko lotura eta aliantzak, eta Euskal Herriko Mugimendu Feministaren mobilizazioetan izandako inplikazioa.

Iraupena: ordu eta erdi

• **Asanblada parte hartzailea egunaren amaieran:**

Zer dira?

Asanblada hauek espazio nagusian egingo dira, jende asko bildu ahal izateko. Egunean zehar mahai eta eztabaidetan landutakoa begirada zabal batekin jasotzeko helburua izango dute. Beste jardueretan ponentziak edo tailerrak aurkeztu ez dituzten kolektibo feministen hitzartzea motibatzeke ahalegina egingo da.

Asanbladak bi zati izango ditu: 1) 6 kolektibo feministetako hitzartze laburra (5 minutu); 2) Eztabaida irekia asanbladan, dinamizazio egokiarekin. Zehaztuko da asanbladetako hitzartzeak aukeratzeko sistema.

Nork parte hartu dezake asanbladetan?

Lehenengo zatian (aldez aurretik zehaztutako hitzartzeetan) talde feministen parte-hartzea lehenetsiko da. Bigarren zatian, parte-hartzea libre izango da, antolatzaileek zehazten dituzten asanbladaren funtzionamendurako arauak errespetatzen diren bitartean.

Iraupena: ordu eta erdi

• **Espazio kultural-artistikoak:**

Lengoai artistikoaren bitartez egindako ekimen feministentzako espazioa ahalbidetuko da: erakusketak, ikus-entzunezkoak, antzerkiak... Ekimen hauetarako espazioa, formatua eta iraupena zehaztuko dira jasotzen diren proposamenen arabera.

Nork aurkeztu dezake proposamen kultural-artistikoa? Espazio hau malgua izango da, antolakuntzak jasotzen diren proposamenak aztertu eta banan bana erabakiko du.

• **Beste batzuk:** Bestelako parte-hartze proposamenak badaude irekitasunez aztertuko dira.

Kontakturako:

ehetopaketafeministak@gmail.com
www.saldabadagojardunaldiak.eus
Facebook: [@SaldaBadagoV](https://www.facebook.com/SaldaBadagoV)
Twitter: [@SaldaBadagoV](https://twitter.com/SaldaBadagoV)
Instagram: [@SaldaBadagoV](https://www.instagram.com/SaldaBadagoV)